



OHIKO GALDERAK BIH - 1.1. Bertsioari buruzko galderak -

Eguneratua
2018.06.27

1. [Noiz egongo da eskuragarri 1.1 bertsioa proba ingurunean?](#)
2. [Etiketaren balioa aldatu besterik ez da egin behar 1.0 bertsioiko XML fitxategiak baliodunak izan daitezen 1.1 bertsioan?](#)
3. [1.0 eta 1.1 bertsioak elkarrekin egongo dira denbora batez?](#)
4. [1.1 bertsioak lehendik dauden WSDL berak erabiltzen ditu?](#)
5. [XSD fitxategiak ordeztuko dituzte bertsio berrikoek uztailaren 1ean?](#)
6. [1.1 bertsioiko endpoint-ak 1.0 bertsioiko berak al dira?](#)

OHIKO GALDERAK BIH

- 1.1. Bertsioari buruzko galderak -

1. Noiz egongo da eskuragarri 1.1 bertsioa proba ingurunean?

Ekainaren 5etik aurrera eskuragarri dago 1.1 bertsioaren proba ingurunea.

[Itzuli](#)

2. Etiketaren balioa aldatu besterik ez da egin behar 1.0 bertsioiko XML fitxategiak baliodunak izan daitezen 1.1 bertsioan?

Ez. 1.1 bertsioaren eskemetan badaude aldaketa batzuk, 1.0 bertsioiko XML fitxategiak aldatzera behartzen dutenak, horiek baliodunak izan daitezten.

Adibidez:

- Etiketa hauek berrizendatu egin dira bertsio berrian:
 - <PeriodoImpositivo> honela berrizendatzen da <PeriodoLiquidacion>
 - <EmitidaPorTerceros> honela berrizendatzen da <EmitidaPorTercerosODestinatario>
 - <ImporteTransmisionSujetoAIVA> honela berrizendatzen da <ImporteTransmisionInmueblesSujetoAIVA>
- Bertsio berriko jaulkitakoen liburuan, <TipoDesglose> blokearen barruan, <DetalleExenta> etiketa erantsi da, zenbateko salbuesia xehakatzeko ahalbideratzeko, bateragarri bihurtu diren salbuespen zio desberdinen arabera.

[Itzuli](#)

3. 1.0 eta 1.1 bertsioak elkarrekin egongo dira denbora batez?

Bai. Bi bertsioak egongo dira erabilgarri uztailaren 1etik irailaren 20ra arte. Irailaren 21etik aurrera (ostirala) 1.1 bertsioa besterik ez da onartuko.

[Itzuli](#)

Eguneratua
2018.06.27



4. 1.1 bertsioak lehendik dauden WSDL berak erabiltzen ditu?

1.1 bertsioiko WSDLek 1.0 bertsioiko namespace eta URL berberak erabiltzen dituzte. Baina 1. bertsioiko XSD eskema berrietara erreferentziatzen da, zeren eta <schemaLocation> etiketa 1.1 bertsioiko XSD eskemetara “zuzendua” baitago.

Egiazta dezakezu, esaterako, URL honen WSDL berria inportatuz:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/ogasuna/sii/ficheros/v1.1/SuministroFactEmitidas.wsdl>,
eta 1.1 bertsioiko XMLak ongi sortzen dituela ikusiz.

[Itzuli](#)

5. XSD fitxategiak ordeztuko dituzte bertsio berrikoek uztailaren 1ean?

Ez. 1.1 eta 1.0 bertsioetako WSDLak eta XSD eskemak egongo dira aldi berean, bakoitza kokaleku batera igota. Denbora batez, elkarrekin egongo dira bi bertsioak PRODUKZIOAN.

Adibidez, egindako fakturetarako, hau izango dugu:

1.1 BERTSIOAN:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/ogasuna/sii/ficheros/v1.1/SuministroFactEmitidas.wsdl>

1.0 BERTSIOAN:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/ogasuna/sii/ficheros/v1.0/SuministroFactEmitidas.wsdl>

[Itzuli](#)

6. 1.1 bertsioiko endpoint-ak 1.0 bertsioiko berak al dira?

Bai. WSDL fitxategien definizioetan ikus daitekeen bezala, bi bertsioetako endpoint-ak berberak dira. Gainera, denbora batez bi bertsioak egongo dira elkarrekin.

[Itzuli](#)